

BERRI OROKORRAK

2025eko urriaren 17an

6. zenbakia

“EUSKARAZ BIZI NAHI DUT” material eskaintza

“Euskaraz bizi nahi dut” mezuak indartsu eta argi transmititzen du euskararen aldeko jarrera.

Horregatik da hain arrakastatsua.

Euskararekiko aldeketasuna ezagutzera emateko lagungarri gertatuko zaizuelakoan kamisetez gain, ogitartekoak biltzeko Boc’n’rolla eta botila ere eskaintzen dizkizuegu. Eta baita oso erabilgarriak diren kotoizko poltsak ere.



Beti bezala, kanpaina honen **etekina euskalgintzaren proiektuetara bideratuko da.**

Tutoreari jakinarazi zein den aukeratutako produktua **azaroaren 4a** baino lehen (eskaera orria bera inprimatu eta betez edo papertxo batean aukera idatziz). **Ordainketa eskudirutan** egin behar da (eskariarekin batera tutoreari emanetz).

Produktuen irudi eta neurriak [hemen](#) topatuko dituzue.

Palestinaren aldeko ekintzak

❖ Zapaten bilketa

Ikasturte honetan **Gure Haurrak ere Badira**-k deituta, EHko ikastetxe guztietan egingo den Palestinaren aldeko ekimen bat prestatzen gabiltza. Horretarako ehunka zapata zahar behar ditugu eta etxean jada erabiltzen ez dituzuen horiek ekartzeko deia egiten dizuegu. **Pareak bere sokarekin edo brida txiki batzuekin lotuak ekarri, mesedez.** Ikastetxeko sarreretan jasoko ditugu. Aurrerantzean, zapata guzti hauek, Gure Haurrak ere Badira ekimenetan erabili ahal izango ditugu.



Bilketa GAUR arte egingo da.

❖ Kamiseta elkartasun keinu gisa

Gure Haurrak ere Badira-k kamiseta bat aterako du eta ostegunero izango diren elkartasun egunetan jatzeko deia egiten du.

Gau beltza Usurbilen: hezur lapur badator!

Guraso, Gau Beltza gertu daukagu (urriak 31, ostirala) eta aurten, beste urteetan ez bezala, HH eta LHko ikasle eta familia guztiek gozatzeko moduko planean parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi dizuegu.

Ikastolan Gau Beltzaren inguruan lanketa bat egingo dugu, beldurraz hitz eginez. Haurren beldur idatzi zein marraztuak ere jaso egingo ditugu Gau Beltzean erretzeko.



Iluntzerako **jolas-erronkak** antolatu ditugu guraso talde batek (mailaren batek erronka aldatu nahi badu edo zerbait gehitu nahi badio, libre da). Erraztearren, **jada landuta dauden jolasak eskuragai jarriko dizkizuegu, baita materiala ere.**

Baina **GURASOEN LAGUNTZA** beharko dugu jolas hauek aurrera eramateko; **gurasorik eskaintzen ez bada, maila horretan erronkarik gabe geratuko dira haurrak.**

Erronkak, non?

HH Hezurren bila: ARTZABALEN

LH1-2 Puzzleak: UDARREGIKO ZEZEN PLAZAN

LH3-4 Hieroglifikoak: ERREKATXIKIKO PARKEAN

LH 5-6 Altxorraren bila: ARANERREKAN

Erronka-jolas hoiek egin ondoren **denok** Artzabaldik Errekatzikiko parkean barrena **kalejiran frontoira joatea da helburua** eta bertan, Txorimaloaren inguruan, gauari itxiera ematea. **Kalejiran edonork parte hartu lezake**, erronketan aritu ez direnek ere bai.

Erronkak mailaka planteatu ditugun arren, ez gara zurrinak izango, anaia-arreben artean familia bakoitzak erabaki lezake zein erronketan parte hartu nahi duen. Iluntasunak, mozorroek... haur bakoitzarengan aurreikusi ezin den eragina izan ohi du eta horregatik **gurasoak gertu egotea komeni** da.

Erronkez arduratzeko guraso ordezkariak behar ditugu eta baita erronka bakoitzerako laguntzaileak eta "extrak" ere. Zirimarakoen laguntza ere izango dugu.

BEHAR DEN JENDEA	ZEREGINA
Mailakako guraso ordezkariak: 2 maila bakoitzeko	-Gauean bertan erronka azaldu eta bideratu (ikastolan ere azalduko zaie erronka aldezturik). -Erronkaren bilgunean egon helburua bete dela egiaztatzeko. -Erronketan lortutakoa frontoira eramaten lagundu. -Mailako beldurren zakuaz arduratu (irakasleek emango dizute).
Guraso laguntzaileak: LH3: 2 LH4: 2 LH5: 2 LH6: 2	-Erronkan zehar taldetxoei lagundu. *HH eta LH1-2an gurasoak norbere haurren arduradun.
“Extrak”: HH Artzabalen: 4-5 LH1-2 Zezen plazan: 4-5 LH3-4 Errekaxiki parkean: 5-6 LH5-6 Aranerreka: 5-6	-Mozorrotuta egon -Sustoa, ezustea eragin. Arauak kontuan izan eta errespetatu.

“Extra” gisa animatu bazara, kontuan izan ARAUAK:

- Disimuluz, ezustean, errespetuz, gainontzeko extren lana zapaldu gabe eta haurrak “gehiegi” larritu gabe aritu behar duzu.
- Zure guneko erronkako toki desberdinetan zehar egon eta sorpresa sortu behar duzu.
- Sorpresa eragin eta isilik paperean jarraitu. Haurra negarrez hasten bada, gurasoek/laguntzaileek goxatuko dute, ez gehiago larrituarazi. Neurtu.
- Batzuk geldirik, estatiko egon zaitezke baina besteak mugitu zaitezke, betiere erronkako gunetan extren-arteak oreka mantenduta. “Extra” moztutako adibideak: zaurituak, sorginak, “eroak”, mamuak, agure zaharrak, inguruko edozein animalia (belea, armiarma...), ezustean mugitzen diren harriak, adarrak...

ANIMATZEN zaretenok **adierazi zuen seme-alabaren tutoreari lehenbailehen.**

Ospa dezagun gure Gau Beltza!

HAUR-HEZKUNTZA

Zorriak

HH 4ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-ne neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Ikasturte hasierako bilerak

❖ HH 3

Urriaren 21ean, asteartea, arratsaldeko **16:45ean**, **seme-alabaren gelan**, ikasturte hasierako bilera egingo da.

Zaintza zerbitzua izango da.



❖ Haur Eskola 2-3 urte

Urriaren 30ean, osteguna, arratsaldeko **17:00etan** **seme-alabaren gelan**, ikasturte hasierako bilera egingo da.

Ez da zaintza zerbitzua izango.

Bilerara haurrik gabe etortzea eskatzen da.

LEHEN HEZKUNTZA

Zorriak

LH 2ko eta **LH 4ko** ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-ne neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Eskola osasun programa

Gaur **LH 6-ko ikasleei** eskola osasuneko programa barruan dauden ACWI meningokokoaren eta giza papilomaren birusaren kontrako txertoa jasotzeko baimen orriak banatuko zaizkie. **Urriaren 24rako sinatuta**, tutoreari ematea eskatzen dizuegu.



DBH

Zorriak

DBH 4ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-ne neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIAITU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Irteera

Datorren astelehenean, **DBH 4ko** ikasleekin Donostiako Kursaal-era egingo dugu irteera "**Inspira bizitzak**" izeneko topaketara. STEAM esparruan (zientzia, teknologia, ingeneritza, artea eta humanitatean) lan egiten duten profesionalekin elkartzea du helburu topaketa honek. Gogoratu Mugi txartela eraman behar dutela.

